

2019KO MAIATZAREN 23AN EGINDAKO APARTEKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2019ko maiatzaren 23an, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EHBildu)

Zinegotziak:

- MARÍA ISABEL BATUREN LASA andrea (EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- AITOR IBARZABAL BATUREN jauna (EH Bildu)
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA jauna (EAJ-PNV)
- MARIA BEGOÑA ABIO ZAPIRAIN andrea (EAJ-PNV)
- AITOR APRAIZ IMATZ jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI)

Zinegotzia honeek ez dira bertaratu: JOSÉ ANTONIO ABIO ERKOREKA jauna (EAJ-PNV) eta ALAIN GÓMEZ BILBAO jauna (BAKIOBAI)

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren aparteko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate andrearen lehendakaritzapean honako gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

1.- ONDORENGO ZERBITZUAREN KUDEAKETA ADJUDIKATZEA: BAKIOKO BIDE JAKIN BATZUETAN IBILGAILUAK APARKATZEKO DENBORA MUGATZEARI, ANTOLATZEARI ETA KONTROLATZEARI BURUZKO ZERBITZUA.

Bakioko Udalbatzak 2018ko martiaren 28an haxe erabagi eban: Bakioko bide jakin batzuetan ibilgailuak aparkatzeko denbora mugatzeari, antolatzeari eta kontrolatzeari buruzko zerbitzu publikoa kudeaketari jagokonez, kontratazino espedientea onartzea, kontratua eraenduko daben administrazino klausulen eta baldintza teknikoen orriak barruan dirala, bai eta bideragarritasun azterlan ekonomikoa be. Gauzak horrela, adjudikazinoa prozedura zabal bitartez izapidetuko da, eta kontratuak urte biko iraupena izango dau (kontratua urtez, urte bi luzatu ahal izango da).

Kontuan izanik, lizitazinoaren deialdia eta espedienteko agiriak Kontratistearen Profilean imini zirala.

Kontuan izanik, epe barruan lizitatzaile bi honeek aurkeztu zirala:

Estacionamientos y Servicios, S.A. (EYSA)
GERTEK, sociedad de gestiones y servicios S.A.

Kontuan izanik, Kontratazino Mahaiak, 2019ko maiatzaren 8an, egintza honek egin ebazala:

Hasteko, balio-judizio baten mende dagozan dokumentuak biltzen dauzan “B” gutun-azaletan lehiatzaileek aurkeztutako dokumentazioari jagokonez (Eysa enpresek azterlan teknikoa eta azterlan ekonomikoa eta Gertek enpresek azterlan teknikoa), udal aparejadoreak egindako balorazino-txostena onartu eban eta bertan azaltzen zan puntuazioaren barri emon zan.

Segiduan, proposamen ekonomikoa gordetzen dauzan “C” gutun-azalak ireki ebazan (Eysa enpresek proposamen ekonomikoa aurkeztu eban eta Gertek enpresek proposamen ekonomikoa eta azterlan ekonomikoa), eta lehiatzaile biak gehiengo puntuazioa lortu eban.

*Azkenik, “B” gutun-azaletan dagoen dokumentazioari emandako puntuazioa (balio-judizio baten mende dagozan dokumentazioa) eta “C” gutun-azaletan dagoen dokumentazioari buruzko puntuazioa batu eta, ondorioz, lizitatzailer honen aldeko proposamena egin ebala: *GERTEK, sociedad de gestiones y servicios S.A.**

Guztira puntuazioa hauxe izan zan:

	PUNTUACION MAXIMA	PUNTUACION OBTENIDA		
		Gertek	Eysa	
Estudio técnico presentado	20	16	11	
Coherencia del estudio económico	10	0	3	
Oferta económica	70	70	70	

Kotuan izanik, puntuazio guztiak ageri dan balorazino txostena kontratistearen profilean ipini dala.

*Kontuan izanik, Alkatetzaren maiatzaren 10eko 134/2019ko. dekretuaren bidez, 2019.05.08ko Kontratazino Mahaiaren proposamena ontzat emon zala, eta, ondorioz, *GERTEK, sociedad de gestiones y servicios S.A.* agiri zehatz batzuk aurkezteko eskatu, eta, dagoeneko, agindu hori bete duela*

Horrenbestez, espedientean ageri den dokumentazioa aztertu ostean, eta Sektore Publikoaren Kontratuari buruzko zementariaren 8ko 9/2017 Legearen 150. artikuluan eta lege horren bigarren xedapen gehigarriak ezarritakoaren arabera, Alkatetza honek honako erabakia hartu dau:

LENEHIK.- batetik, kontratazino honeri jagokon prozeduraren barruan egindako tramiteak berroneste; eta, bestetik, Bakioko bide jakin batzuetan ibilgailuak aparkatzeko denbora mugatzeari, antolatzeari eta kontrolatzeari

buruzko zerbitzuaren kontzesinoa **GERTEK, sociedad de gestiones y servicios S.A.** enpreari adjudikatzea, kontratuaren burutzapen epea urte bikoia izanik, beti be administrazio baldintza zehatzen orrian, preskripzio teknikoaren orrian eta adjudikaziodunaren agirietan zehaztutakoaren menpe, bai eta proposamen ekonomiko honen arabera:

“Que me comprometo a la ejecución del servicio de control, delimitación y ordenación del estacionamiento de vehículos en determinadas vías públicas de BAKIO, abonando al Ayuntamiento, anualmente, el 100 % del excedente”.

BIGARRENIK.- 2019ko ekitaldiko udal aurrekontuaren gastuen orriaren 1332279903 partidaren gastuei aurre egiteko ordainketa kreditua zainpetuta dagoela, eta hurrengo urteetako udal aurrekontuaren gastuen orrian behar dan zenbatekoa zainpetuko dala, orduan egon daitezkezan gastuak ordaintzeko asmoz.

2.- IBARRATORRE KALEA URBANIZATZEKO OBREN PROIEKTUA BEHIN BETIKO ONARTU, HALA BEHAR BALITZ, BETI BE JOSÉ ANTONIO ALDECOA JAUNAK AURKEZTUTAKO ALEGAZINOAREN GANEKO EBAZPENA HARTU OSTEAN. ETA, AZKENIK, OBRAK GAUZATZEKO BEHARREZKOAK DIRAN ONDASUN ETA ESKUBIDEEI BURUZKO NAHITAEZKO DESJABETZE-ESPEDIENTEARI HASIKEREA EMON.

A.- Lehenengo eta behin, kontuan hartu beharra dago udalbatzak, 2019.03.28an egindako bileran, Ibarretorre kalea urbanizatzeko obren proiektua onetsi ebal, eta, ostean, espedientea jendaurrean ezarri zala, horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta herriko ediktu taulan beharrezko iragarkiak ipiniz.

Jose Antonio Aldecoa Luzarraga jauna 2019.04.15ean udaletxean aurkeztua zan eta erakutsi jakon proiektuaren kopia bertan egunean bidali jakon emailaz. Horren ondorioz alegazino-idazkia aurkeztu dau 2019.05.09an (erregistriko sarrera: 1009).

Hori dala eta, horren alegazinoei buruz udaleko idazkariak ondoko hauxe jakinarazo dau:

“El proyecto fue aprobado por el Pleno del Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 28 de marzo de 2019, y sometido el expediente a información pública y trámite de audiencia, se ha presentado el referido escrito de alegaciones, dado que las obras conllevarán a la ocupación definitiva de una porción de terreno de 122,67 m². Propiedad del alegante.

D. José Antonio Aldecoa, expone las siguientes ALEGACIONES:

PRIMERA. – Nulidad Radical del proyecto, y del acuerdo plenario que o aprueba.

Las Normas Subsidiarias del ayuntamiento de Bakio contemplan la ejecución de un vial de doble sentido de una anchura superior al que se pretende llevar a cabo con el Proyecto aprobado, por consiguiente, el proyecto contraviene de forma palmaria la Norma Subsidiaria la cual se equipara legalmente a un Reglamento, y el Reglamento es Ley.

SEGUNDA. – Oposición expresa a la ocupación definitiva del terreno. Vía de hecho.

No existe ninguna voluntad de cesión voluntaria, ni de permuta por parte del Sr. Aldecoa, por lo que, además de lo manifestado en la alegación anterior, hemos de advertir expresamente que el ayuntamiento de Bakio no tiene título alguno para poder el terreno de mi propiedad, advirtiendo que expresamente que (aparte de suponer una vía de hecho expresamente prohibida por Ley) se entenderá como una ocupación “manu militari” con las consecuencias que ello conlleva.

Visto el contenido de las alegaciones, procede informarlas en los términos siguientes:

Respecto a la alegación primera:

La urbanización de la calle Ibarra Torre, es una obra municipal ordinaria, ya que no atiende al desarrollo integral de determinaciones del planeamiento, es decir no tiene por objeto el desarrollar íntegramente el conjunto de previsiones de un plan de ordenación, o sea, es una obra aislada que no tiene su punto de apoyo legal en un Plan. La necesidad de ejecutar las obras de urbanización de la calle Ibarra Torre, viene especificado en el informe de fecha 21.03.2019 del arquitecto asesor municipal, en los términos siguientes:

Eskola Bideak

Desde la iniciativa de Eskola Bideak se realizó un proceso participativo en el cual se identificaban una serie de problemáticas con las que contaban los alumnos de la escuela de Bakio a la hora de acceder a la propia escuela desde sus domicilios. En especial destacaba el estudio que la mayoría de problemas con los que contaban los/as alumnos/as se concentraban en la calle Ibarra Torre, en concreto, eran que la calle era estrecha, con falta de iluminación, que al transitar por ella y ante la presencia de los coches utilizando la mayor parte del espacio de la misma los/as alumnos/as sentían una gran sensación de inseguridad y que si mejora la sensación de seguridad en torno a ella la utilizarían con mayor asiduidad.

Plan de accesibilidad

En el Plan de accesibilidad aprobado recientemente (pleno municipal de 27.09.2018) el tramo de la calle Ibarra Torre que nos ocupa denominado ITI 5-10 está considerado la situación actual como muy grave y su mejora está considerada como actuación prioritaria.

NNSS

En la documentación de las NNSS Calificación Usos Pormenorizados del Suelo Urbano. Alineaciones y Rasantes, etc. Aparece reflejado que en la calle Ibarra Torre se amplía la traza de la calzada existentes además de dotar al vial de doble acera en ambos lados.

En el mismo informe se señala que “el proyecto consiste en la adecuación de la calle Ibarra Torre siguiendo los objetivos marcados por los referidos estudios y planes. Estos son los objetivos en los que se basa el proyecto: convertir la calle Ibarra Torre en una calle de prioridad peatonal y para el tránsito de bicicletas, convertir la calle en una zona de seguridad para los alumnos/as de la escuela de Bakio, mejorar las condiciones de inundabilidad del arroyo Uxiña mediante la eliminación de los puentes de la casa Arrien y la ampliación del propio cauce del arroyo, incrementar la seguridad de la calle, mantener el carácter actual de la calle relacionada con un entorno semirural y dar continuidad al bidegorri existente que viene desde Bakea conectándolo con la escuela y la zona equipamental, Solozarre y la calle Basigo kale nagusia.

Es decir, el objeto de la obra no es el tratar de materializar las determinaciones de las Normas Subsidiarias de Bakio. Pero es que, además, la obra no contraviene esas Normas, puesto que, según dicho informe técnico municipal, en el proyecto aparece reflejado que en la calle Ibarra Torre se amplía la traza de la calzada existente además de dotar al vial de doble acera en ambos lados

En virtud de lo aquí expuesto procede desestimar la alegación alegación.

Respecto a la alegación segunda:

El Ayuntamiento no tiene intención de proceder a la ocupación de terreno por vía de hecho, no es esa su manera de actuar. Lo que quiere es llevar a cabo la ejecución de las obras de urbanización de la calle Ibarra Torre por las razones anteriormente expuestas, pero compensando las afecciones que a los bienes de los particulares pueda ocasionar esa ejecución.

El Ayuntamiento, como bien sabe D. José Antonio Aldecoa, ha hecho todo lo posible para que ambas partes lleguen a un mutuo acuerdo para posibilitar la ocupación del terreno afectado por la obra de una manera amistosa y pacífica, mediante la oportuna compensación según los términos que el alegante conoce. Y ello teniendo presente el principio de proporcionalidad que ha de regir la actuación o intervención administrativa, que incluye la necesidad de adecuación a los fines de los medios aplicables, así como la necesidad de que, en el supuesto de que fueren varios los posibles medios o formas de intervención, la Administración tenga el deber de elegir aquél medio que sea el más idóneo y que, respecto a los ciudadanos, sea el menos restrictivo para los derechos de estos.

No habiendo sido ello posible alcanzar ese mutuo acuerdo, y no por culpa del Ayuntamiento, quedará la vía de la expropiación forzosa. Pero, en todo caso, no está prevista la ocupación por vía de hecho del terreno de 122,67 m2. (en realidad 125,68 m2.) afectados por las obras.

Por lo demás, no cabe duda alguna que la urbanización del camino de Santa Catalina, redundará en beneficio de la actividad a que se vaya a destinar el edificio sito en Ibarra Torre nº 3 (Torrea), en la medida que mejorará con mucho, respecto a lo existente actualmente, la comunicación vial y accesos a las fincas colindantes”.

Azaldu beharrekoa da, Aldecoa jaunari desjabetu beharreko lurzattia 122,67 metro karratua barik, proiektuaren arabera 125, 68 m2. dirala.

Horrenbestez, tramitaturiko espedientea ikusita, udalaren osoko bilkurak bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar) erabagi hau hartu dau:

1.- José Antonio Aldecoa Luzarraga jaunak aurkeztutako alegazioen inguruan erabagi honen azalpen zatian jasotakoaren arabera ebaztea.

2.- Ibarra Torre kaleko urbanizazio obren proiektua behin betiko onestea. Proiektu hori, udalaren aginduz, arkitekto honek idatzi dabe: Anartz Ormaza Ugalde jaunak eta Maite Eizagirre Markaide andreak, eta aurrekontu orokorra 219.202,24 eurokoa da.

Horrela bada, 1986ko apirilaren 18ko Toki Araubideari jagokon indarreko legerien Testu Bateratuko 94. artikuluan eta 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen 10. eta hurrengo ataletan eta lege honen araudian ezarritakoaren arabera, onespenez honen ezinbestean ekarriko dau proiektuko obrak herri onurakoak dirala adierazotea, ondasunak behin-behinean okupatzea eta beharrezko eskubideak eskuratzea, beti be desjabetzapenak egin, ondasunok behin-behinean okupatu eta zortasunak ezarri edo aldarazoteko.

B.- Udalak 2019ko maiatzaren 23ko osoko bilkuran behin betiko onetsi dau Ibarra Torre kaleko urbanizazio obren proiektua; Proiektu hori, udalaren aginduz, arkitekto honek idatzi dabe: Anartz Ormaza Ugalde jaunak eta Maite Eizagirre Markaide andreak eta beragaz dakar erabilera publikoaren ganeko adierazpena.

Era berean, kontuan hartu beharra dago, Derrigorrezko Desjabetzeari buruzko Legearen 10. artikuluan eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzazko Errege Dekretuak toki araubidearen inguruan onetsitako indarreko legezko xedapenen testu bateratuaren 94. artikuluan ezarritakoagaz bat etorritz, mueta honetako proiektuen onespenez beragaz dakarrela erabilera publikoaren adierazpena eta horren barruan sartutako higiezinak okupazioa, beti be nahitaezko desjabetzeen ondoretarako.

Horrenbestez, tramitaturiko espedientea ikusita, udalaren osoko bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamar) erabagi hau hartu dau:

1.- “Ibarratorre kaleko urbanizazio obren proiektua” gauzatzeko lanak beharrezkotzat jotea, beti be aitaturako proiektu teknikoaren arabera; horren ondorioz, proiektu horren burutzapenak ikutzen dauzan ondasun eta eskubideak nahitaez desjabetzeko espedienteari ekin beharko jako, horren barruan erabilera publikoko adierazpena eta beharrezko higiezin okupazioa sartuz; horrela bada, proiektuak ikutzen dauzan higiezin horren zerrenda zehatz eta banakakoa eta higiezin horren jaubeak nahiz egoitza eta helbidea onetsi dira eta behean emoten da horren guztien barri.

2.- Finka bakotxaren banakako desjabetzapenari jarraitzea, jendurreko informazio aldia hamabost eguneko epean zabalduz udaleko iragarki taulan, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta egunkari batean; horrela bada, interesatuei banan-banan jakinarazoko jake, desjabetzeak ukitutako eskubideen titularrek behar beste datu emon daiezan, argitaraturiko zerrendan egin ahal izan diran akatsak zuzentzeko edota ondasunak edo eskubideak eskuratzeko okupazioaren kontra jo daien, beti be modu arrazoituan oinarritu beharreko formako edo funtsezko arazoak dirala eta.

Ondasunen legezko deskripzio materialean egon leitekezan akatsak zuzentzeko, edozein personak, natural edo juridikoak, behar beste aurrekari edo erreferentzia alegatu ahal izango dauz.

3.- Erreklamaziorik egon ezean, ondasunen zerrenda zehatza behin betikotzat joko da.

4.- Alkatetzari beharrezko ahalmenak emotea ondasunak alkarren adostasunez eskuratzeko beharrezko adiskidantzazko gestioak bideratu daizan.

DESJABETZE ESPEDIENTEA

PROIEKTUA: “Ibarratorre kaleko urbanizazio obren proiektua”

UKITUTAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA

FINKA: 1

JAUBEA: José Antonio Aldecoa Luzarraga.

HELBIDEA: Ibarratorre 3, Bakio (Bizkaia).

DESJABETU BEHARREKO LURRAREN AZALERA: 125,68 m².

LURREN KOKAPENA: Uri-Lurzoru Katastroaren 5. poligonoko 8.etxadia.

LUR MOTA: Antzua.

LURRAREN URIGINTZA-SAILKAPENA: uri-lurzorua.

3.- 2018-2019 IKASTURTEARI JAGOKONEZ, EUSKERA IKASTEAGAITIKO DIRULAGUNTZAREN DEIALDIA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Zinegotziek gaiaren jakitun dirala kontuan hartuz; izan be, informazio batzordean aztertu da eta, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira bederatzi), erabagi hau hartu dau: **2018-2019 ikasturteari jagokonez, euskera ikasteagaitiko dirulaguntzaren deialdia onestea, edukia hauxe izanik:**

1. HELBURUAK ETA DOTAZIOAK

Bakioko Udalak, euskararen normalizazioa arlo guztietara sustatzeko helburua hartuta, besteak beste, euskara ikasi nahi duten herritarrei erraztasunak eman nahi dizkie eta, horretarako, egokitzen jo du euskara ikasleentzako diru-laguntza sistema antolatzea eta arautzea.

Deialdiaren xedea, Bakion erroldatutako biztanleentzako diru-laguntzak emateko baldintzak arautzea da, 2018/2019 ikasturtean zehar edota udan helduentzako euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak egiteagatik homologaturik dauden euskaltegi edota barnetegietan.

Udalak 2.000 euroko diru-zainpeketa onartu du udal aurrekontuaren 330-4810119 partidan.

2. JASOTZAILEAK

Diru-laguntzaren jasotzaileak: Bakion erroldatuta egon, hamasei urte izan, eta ikastaroak euskaltegi homologatuetan egin dituztenak izango dira.

Bakion erroldatuta egotea.

Gutxienez %75etik gorako asistentzia izatea.

Bakioko udalean zorrik ez izatea.

3. EPEAK

Eskariak aurkezteko epea, deialdia onartzen den egunetik hasita zabalik egongo da 2019ko urriaren 1era (eguerdiko 14:30era arte, hain zuzen).

4. EMATEKO PROZEDURA ETA IRIZPIDEAK

Diru-laguntzak asistentziaren eta aprobetxamendu edo gainditze mailaren arabera banatuko dira.

Hartara, Ikastaroaren iraupen-denboran %75ko asistentzia egiaztatu beharko da.

Era berean, egindako maila edo mailak gainditu beharko dira edo, bestela, egindako ikastaroetan aprobetxamendu egokia izan. Hori guztia euskaltegiaren ziurtagiri bitartez egiaztatuko da.

Matrikularen %30 lagunduko da diruz. Hala ere, eskatzaileei gehienez eman dakizkiekeen diru-laguntzen kopurua 95 eurokoa izango da.

Gerta daiteke eskaera kopuruaren ondorioz diru-laguntzaren 95 euroko kopurua behar bestekoa ez izatea ontzat emandako eskaera guztiei zenbateko hori eman ahal izateko; halakorik gertatuz gero, aurrekontu partidan ezarritako diru-kopurua ontzat emandako eskaeren artean hainbanatuko da modu proportzionalen.

5. ESKARIAK

Eskabide-orria udal erregistroan aurkeztuko da honako agiriekin batera:

- Matrikularen ordainagiria edota zentroak egindako ziurtagiria.*
- Euskaltegiaren ziurtagiria ondoko datuekin: ikasturtea, hasiera eta amaiera egunak, ordutegia, hasierako maila, ikastaroaren ordu teorikoak, aprobetxamendua zein ikasleak emandako orduak eta matrikularen prezioa.*

6. INSTRUKZIOA, ERABAKIA ETA BIRFORMULAZIOA

Eskariak aurkezteko epea amaitu ondoren aztertu egingo dira eta, hala badagokio, interesdunei jakinaraziko zaie hamar eguneko epea dutela falta den dokumentazioa aurkezteko.

Epe horren ostean, eskariak aztertuko dira informazio batzordeak erabakia eman behar duen udalbatzari bere irizpena helarazteko.

Erabakia emandakoan, udalaren iragarki oholean eta webgunean emango da erabakiaren berri, interesdunek jakin dezaten non aurkitu informazioa.

Horrela, onuradunak bere eskaria birformulatu ahal izango du entzunaldiko hamabost eguneko epean. Birformulazio horiek informazio batzordeak onartu edo baztertu egin ditzake eta beharrezko kasuetan, berriro irizpena helarazi.

Birformulazio edo uko egite kasurik egon ezean, emandako diru-laguntza onartzen dela ulertzen da.

7. BATERAGARRITASUNA

Diru-laguntza hauek, helburu bera duten beste administrazio edo ente publiko edo pribatu, nazionala edo Europakoa, edo nazioarteko beste erakunde batzuetako beste diru-laguntza batzuekin bateragarriak dira.

Edozein modutan, diru-laguntza inoiz ez da izango diruz laguntzen den proiektuaren gastua baino handiagoa.

8. ORDAINKETAK

Erabakia ematean, onartutako diru-laguntza ingresatuko da.

9. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Baldintzak bete direla egiaztatzea, eta diru-laguntzak oinarri duen jarduera bete dela.

Diruz lagunduriko jarduerentzat bestelako diru-laguntzak, sarrerak edo baliabideak lortu direla jakinaraztea. Jakinarazpen hori jakin bezain laster egin beharko da, eta izatekotan, jasotako funtsei emandako aplikazioa egiaztatu aurretik.

10. DIRU-LAGUNTZEN ITZULKETA

Halaber, dirua itzultzeko zioak dira Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 36. eta 37 artikuluetan jasotako guztiak.

11. KLAUSULA GEHIGARRIA

Deialdi honetan jasotzen ez diren bestelako gaiak dagokienez, 38/2003 Diru-laguntzen Lege orokorrean eta bat datozen gainontzeko lege arauetan ezarritakoari lotu beharko zaio.

4.- LANKIDETZA-HITZARMEN HAU ONARTU, HALA BEHAR BALITZ: BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA BAKIOKO UDALAREN ARTEKOA, GAZTELUGATXEKO (URIZARRETA) ZERBITZUAK KUDEATZEKO.

Kontuan izanik, Bakioko Udaletxean, Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik, Gaztelugatxeko (Urizarreta) zerbitzuak kudeatzeko hitzarmena jaso dala.

Kontuan izanik, Bakioko udal teknikariek hitzarmena begi onez ikusi arren, ondoko aldaketak egitea proposatu dabela, ondorioz, aldaketak egin diran klausulak era honetara idatzita geratu daien:

BIGARRENA: BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN KONPROMISOAK

b) Udalerriko saneamenduko instalazioaren tarte batzuk lau hilean behin garbitzea, bisitan datoren jendetzaren ondorioz narriadurarik gertatzen bada:

- 1. tarteak: Komun eramangarrien hartuneen eta San Pelaioko hondakin-uren punpaketa-estazioaren arteko grabitate-hodia.
- 2. tarteak: San Pelaioko hondakin-uren punpaketa-estazioaren eta Bakioko hondakin-uren araztegiaren arteko zirkulazio behartuko hodia.
 - Ponpa putzuko hondakin urak hustea, lan horren barnean urak kentzeko eta tratatzeko zeregina sartuz.
 - San Pelaioko HUPEn urak ateratzeko lanabesak ikuskatzea eta mantentzea.

HIRUGARRENA: BAKIOKO UDALAREN KONPROMISOAK

a) Aurreko atalean azaltzen diren komun eramangarrien hustuketa-hodiak udalerriko saneamendu-sarera konektatzea, hurbilen dagoen saretara, hain zuzen. (Planoa I. eranskinean)

San Pelaioko HUPEn dagoen lekua noizean behin garbitu, hondakinak kendu eta ikuskatze lanak egitea.

Zinegotziek horren guztiorren barri daukien ezkerreko, eta Informazio Batzordean berba egin dan ezkerreko be, Bakioko Udaltzako, ondorengo erabagi hau hartu dau bertaratutako zinegotzien aho batez, (4 zinegotzi EAJ-PNV taldekoak, 4 EH-Bildukoak eta 1 BAKIO BAI-koa).

1.- Bizkaiko Foru Aldundiaren (Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila) eta Bakioko Udalaren arteko Lankidetzaren Hitzarmena onartzea (aitatutako aldaketak barruan dirala), horren helburua hauxe izanik: erakunde bi horren arteko lankidetzaren arautzea, Gaztelugatxeko biotopo babestura bisitan etortzen diren pertsonentzat Urizarretan ipini diren komun eramangarriak kudeatzeko.

2.- Bakioko Udaleko Alkatetzari ahalmena emotea Lankidetzaren Hitzarmena sinatzeko.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan, gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate andreak batzar hau 19:25ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkate andrea

Idazkaria